


# ximple!





## Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

15. zenb. | nº 15

2018ko azaroa

### ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalur

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

### AURKIBIDEA

- 3 "AGOIZKO ISTORIOAK" ERAKUSKETA, ARRAKASTATSUA  
"ARKITEKTURA FAMILIAN" BELAUNALDIEN ARTEKO SORMEN TAILERRA
- 4 MUEVE AOIZ-MUGITU AGOITZ-EN ESTREINALDIA  
"BIZITZARAKO ARTETERAPIA" TAILERRA  
GIZARTE ZERBITZUAK ETA ADINEKOAK  
"ZURE PISU HUTSA NIRE ETXEA IZAN DAITEKE"
- 5 GIZARTETXEA, LASTER ERREALITATE BERRI BAT  
OROIMEN EKITALDIA, 1936AN FUSILATUTAKOEI  
ELOKO TEILERIAN 106 PERTSONA FUSILATUEI OMENALDIA
- 6 BRIGADAK EGINDAKO LANAK AZKEN HILABETEETAN  
AGOIZKO UDALA AUZOEKIN  
TXAKURREN ETA GAINONTZEKO ANIMALIEN ORDENANTZAZ
- 7 IRATI IBAIA GARBITZEKO AUZOLANA  
HONDAKINEN BILTEGI DESEGOKIA  
BAT-NIGHT AGOITZEN
- 8 AGOITZEK 50.000 KM EGIN DITU "ERRONKA SOLIDARIOAN"  
III AGOIZKO MENDI LASTERKETA  
KOSTRADAREN XX. LASTERKETA
- 9 ETB2 SINTONIZA DAITEKE JADA AGOITZEN  
XIII. ARGAZKI LEHIAKETAREN SARIA  
JAIETAKO BALORAZIOA
- 10 PARTE-HARTZE HANDIA, SANMIGELETAN  
KULTUR BALANTZEA
- 11 JITO ALAI AGOITZEN
- 12 EUSKARALDIAK IZENA EMATEKO EPEA ZABALDU DU  
ORREAGA FUNDAZIOAK NAFARROAKO ELKARTEEN EGUNA OSPATU ZUEN AGOITZEN

## "AGOIZKO ISTORIOAK" ERAKUSKETA, ARRAKASTATSUA

Agoizko Udalak herriko ondare historikoa eta inmateriala erre-kuperatzearen alde egiten duen apostuari jarraikiz, martxan jarri du "Historias de Aoiz-Agoizko Istorioak" izeneko proiektua.

"Agoitz, iragana gogoan" liburu-DVDa plazaratu eta "El Irati S.A." enpresaren inguruko erakusketak izan zuen arrakasta ikusi ondoren, aurten Kultur Etxean jarri den erakusketan ikusgai jarri nahi izan dira historiari buruzko zirtzelada batzuk, udal artxibategian eta Nafarroako Artxibategi Orokorrean dauden hainbat dokumentuen bidez. Hamaika panel osatu dira, garaiko ilustrazioak dituztenak, historiak Agoizko historiako une bitxi eta esanguratsuak jasotzen dituztenak (horietako batzuk ikusgai zeuden aretoan bertan ezarritako bitrinen barnean).

Horretaz gain, herriko maketa eder bat jarri zen, Ruiz de Aldak 1929.enean egindako aireko argazkiaren ikuspegia erreproduzitzen zuena. Erakusketa osatzeko, formatu handiko 20 argazki zeuden, XIX. mendearen bukaerako eta XX.eneko jende eta egoerak erakusten zutenak.

Kultur Etxeko areto nagusia jendez gainezka zegoen erakusketaren hasiera ekitaldian, kultur ekimen berriak piztutako ikusmina zela eta. Proiektuaren atzean egon den ekipoak aurreko hilabeteetan egindako lanaren azalpenak eman zituen. Aurkezpenean sorpresa bat izan zen ere, Irati antzerki taldeak atzerako begirada bat egin eta historia egin zuten he-

riko emakumeren hiru pasadizo motz taularatu zuen.

Erakusketa bertan egon zen bitartean, bi bisitaldi gidatu antolatu ziren, Josetxo Paternain eta Inma Oroz herriko historialarien eskutik, eta bietan jendetza bildu zen. Bisitaldietako bat Nafarroako Gobernuak Ondareari buruzko Europako Jardunaldien programazioaren barnean egin zen.

1.000 bat lagun pasatu dira Kultur Etxeko areto nagusia apaindu duten «Agoizko Istorioak» ikustera.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie proiektu hau gauzatzea posible egin duten pertsona guztiei. Beraz, Francisca eta Inmaculada Oroz Rey, Josetxo Paternain Nagore, Alfredo León Mañú, Idoia Zabalza Garate, Juan Jesús eta Isabel Leache Goñi, Toño Villanueva Abaurrea eta Carmen Cosin Reta, MILA ESKER.

### MIGUEL JOSÉ DE AZANZARI BURUZKO HITZALDIA

Erakusketa inauguratu aurreko ostegunean, eta «Historias de Aoiz-Agoizko Istorioak» programaren barnean, udaletxeko Aurelio León areotan, Miguel José de Azanza agoizkoaren inguruko hitzaldi interesgarri bat izan zen. Ana Zabalza Seguín Nafarroako Unibertsitateko irakasleak hitza eman zion Manuel Moreno Alonso Sevillako Unibertsitateko katedradunari. Morenok aurki aurkeztuko du gure herriko pertsonaiaren historiari buruzko liburu zabal bat.



## "ARKITEKTURA FAMILIAN" BELAUNALDIEN ARTEKO SORMEN TAILERRA

Ba al zenekien oraingo udaletxea duela 150 urte eraiki zela eta aurrekoa Hiriko kalean zegoela? Udalak antolatutako eta Yoanna Aguirre arkitekto teknikoak eta Kati Leatxek (Karekin Kultura) eman zuten ikastaroan Agoizko historiaren inguruko zehaztapen bitxi eta ederrak eman ziren ezagutzera. Horretaz gain, arkitektoak izatera jolastu ziren, eta etorkizunean atsegingo luketen udaletxearen maketa egin zuten.

7 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiei zuzenduta, pasa den irailaren 21ean egin zen. Familiek elkarrekin disfrutatzeoko aukera izan zuten, jolasa eta sormen askatasuna helburu zituen aktibitate honi esker.



ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

## MUEVE AOIZ-MUGITU AGOITZ-EN ESTREINALDIA

Jaia urreko astean zehar antolatutako ekitaldien artean, Angiluerreka elkarteak antolatzen duen film laburren lehiaketaren barnean hain zuzen ere, "Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz" flashmoba proiektatu zen. Rut Etxartek, Edurne Mañúk eta Sonia Lambertok egin zuten filma, eta herriko asko eta asko irrikan egon ziren azken hilabete hauetan garatzen joan inizatibaren emaitza ikusteko.

Kanpainaren helburua berdintasunean oinarritutako eta sexu erasorik ez duen Agoitz baten alde egitea da, dantza eta musikaren bidez. Ideia Agoitzko Udaleko Berdintasun Arloak bultzatu zuen, eta martxoan hasi zen, emakumearen egunaren karietara.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie ekimen eder honetan aktiboki parte hartu duten pertsona eta kultur entitateei.

### "BIZITZARAKO ARTETERAPIA" TAILERRA



Pasa den iraileko hiru asteartetan eman zen Agoitzko Udaleko Osasun Arloak antolatutako «Bizitzarako Arteterapia» izeneko tailerra. Ekimenak Nafarroako Gobernuak Osasun departamentuko dirulaguntza zuen, eta bularreko minbiziarekin harremana izan zuten emakumeentzako zuzenduta zegoen.

Tailerrean adin eta bizitza egoera ezberdinean dauden 21 emakumek parte hartu zuten. Mintegi praktikoa Mari José Llorente Wattenberg arteterapeuta profesional eta artista plastikoak eman zuen. Zenbait teknika artistikoen bidez garatu zen: buztina, idazketa, gorputza... helburua "gure BIZI energia" mugitzea zen.



### GIZARTE ZERBITZUAK ETA ADINEKOAK

Pasa den irailaren 13an Kultur Etxeko José Hierro Aretoan izan zen "Gizarte Zerbitzua eta Adinekoak" izenburu zuen mintegi informatibo interesgarri bat. Agoitzko erretiratu, pentsiodun eta alargunen plataformak antolatutakoa zen, eta bertan Ander Lanaskan eta Sara Busto Agoitzko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako ekipoko bi teknikariak izan ziren hizlari.

Bilkuran, gizarte zerbitzuen inguruko azalpen orokor bat egin zen, eta Agoitzko zerbitzuen inguruan beste zehatzago bat. Ondoren, alderdi praktikoago batean, adierazi ziren zeintzuk diren herriko adinekoek dituzten baliabide, prestazio eta zerbitzuak. Hitzaldia arrakastatsua izan zen, 65 pertsona bildu eta haien interesak asebetu baitzituen. Gainera, bertaratutakoek beren za-

### "ZURE PISU HUTSA NIRE ETXEA IZAN DAITEKE"

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialen Lehendakariorde eta Kontseilaria Miguel Laparrak "Zure pisu hutsa nire etxea izan daiteke" goiburua duen kanpaina instituzionala aurkeztu zuen berriki, Alokairuen Poltsaren bitartez etxebizitzak erakartzeko xedearekin, babeseko alokairuendako gordetzeko Nasuvinsa enpresa publikoak kudeatuta. Xingle! aurreko zenbakian informatu genuen bezala, Agoitzko udalbatzak "herriko herritarren etxebizitzarako sarbidea hobetzea" zeregin nagusia duen ekimen honekin bat egin zuen. Hitzarmen honek lau urteko indaraldia dauka, beste lau urtez luzagarria.

lantzak herriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan argitzeko interes handia erakutsi zuten.



Kanpaina hau zehazteko eta ezagutarazteko Etxebizitza Zerbitzuko Zuzendari Javier Etayo hurbildu zen hiribildura, zeinek informazio-hitzaldi jendetsu batean, honen pizgarriak, bermeak eta berrikuntzak zerrendatu zituen.

Alokairu poltsa honetan haien etxebizitza sartzeko interesa duten pertsonak Nasuvinsako bulegoetara joan daitezke haien balorazio eta inbentarioari ekiteko. Halaber, informazioa jaso dezakete 848 42 06 01 telefono zenbakiaren bitartez edota Nafarroako Gobernuak [www.vivienda.navarra.es](http://www.vivienda.navarra.es) web-orriaren bitartez.

## GIZARTETXEA, LASTER ERREALITATE BERRI BAT

Agoitzko Udalak, joan den azaroan egindako osoko bilkuran, Gizartetxea eraikina bame hartuko duen Bidezainen etxearen obren adjudikazioa onartu zuen aho batez. Construcciones Leache izan da adjudikazioduna, eta laster hasiko da lanekin. Urte hasieran eraikinaren egokitzapenarekin amaituko dela uste da, eta Agoitzek gizarte-intereseko baliabide berri bat prest izanen du.

Gizartetxearen ideia 2016ko urtarrilean sortu zen, Agoitzko Udalak etxe honen doako lagapena onura publikoko helburuetara zuzentzeko xedearekin eskatu zuenean. Eraikin honek bi gune sozial bereziak planteatzen ditu. Solairu bat gizarte-justiziaren eremuarekin erlazionaturik dauden jarduerak gauzatzen dituzten eta modu altruistan lan egiten duten gizataldeei zuzenduta dago. Bestetik, eraikinaren beheko solairuan aurreikusten da jubiloteka kontziliazio zerbitzu bat, amasa-gelak ere deituak. Behar garrantzitsu bat gure herrian mota honetako baliabiderik ez baitago. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuti Zaharren Egoitzara pasatzen gara, dependentzia espazio hau arretarik gabe utzi.

Gizartetxearen bitartez zenbait helburu lortu nahi dira. Jubilotekarekin pertsona zaintzaileen eta bere kargura mendekotasuna

duten adineko pertsonak dituzten familien lan-bizitza eta familia bateragarria egitea nahi da, baita mendekotasun moderatua duten pertsonak bere ingurune propioan zaintzea ere, egoitzarik gabeko konponbide batekin.

Gizarte lokalen eratzearrekin emakumeen mobilizazio soziala eta parte hartzea eta presentzia sustatu nahi da, aukera berdintasuna lortzearen mesedetan lan eginez. Elkartune bat dinamizatzea ere aurreikusten da, zabalik gizarte-boluntarioendako.

Proiektu hau Cederna Garalur Elkartearen 2014-2020 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren (TGPE) bitartez %70eraino finantzatuta dago Nafarroako Mendialdeko zerbitzu publikoak hobetzeko, Nafarroako Landa garapenerako 2014-2020 Programako "LEADER" ekimenaren 19. neurriaren barnean kokatzen da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak elkarrekin finantzatuta LGENF Landa-garapenerako Funtsen bitartez.



## OROIMEN EKITALDIA, 1936AN FUSILATUTAKOEI

Oroimenaren parkean (monolito bat dago bertan, gerra garaian fusilatutako eta errepresaliatutako pertsonen oroimenean) elkartu ziren, aurten ere, 1936. urteko kolpe militarren ondoren eraildako Agoitzko eta Longidako 24 pertsonen aldeko omenaldian.

Omenaldia egiten den zortzigarren edizio honetan 200 bat pertsona elkartu ziren, horien artean, Josemi Gaston Memoria-ren Institutuko zuzendaria. Mariano Garcia Musika Bandak eta Agoitzko Txistulariek musika giroa jarri zioten ekitaldiari, Unai Lako

alkateak errepresio frankista pairatu zuten guztien izenak bota zituen bitartean.

Alkateak positibotzat hartu zituen instituzioak bide bazterretan dauden hilobiak ireki eta gorpuak errekuiperatzeko, hala nola fusilatutako edo errepresaliatutako pertsonen omenaldia egiteko guneak sortu edo errekuiperatzearen aldeko apostua. Ekitaldiari bukaera emateko aurreko bat dantzatu eta lore eskaintza egin zen.

## ELOKO TEILERIAN 106 PERTSONA FUSILATUEI OMENALDIA

Eloko Teilerian Ahaztuak elkarteak antolatuta joan den urriaren 20an 1936an kolpistek eraildako 106 pertsonen omenaldi bat egin zitzaien herri honetako pilotalekuan, Nafarroako hobirik handienean, Eloko Teilerian, lurperatu zituztenak. Agoitzko hamabi pertsona daude zerrenda makabro honetan.

Ekitaldiak Nafarroako Gobernuaren elkartasuna eta presentzia izan zuen, fusilatutako zetozen herrietako udal ordezkariak gain, haien artean Unai Lako. Ekitaldian zehar "egia, justizia eta ordaina" eskatu zen kolpe militarren ondorengo biktima guztien dako eta haien memoriarendako leku duin bat exijitu zuten eta Teilerian ahaztuak gogoraraziko dituen monolito bat. Memoria Poetica kolektiboak zirraraz blaitu zuen ekitaldia "lurretik ateratzen diren ahotsekin, errepublikar maisu-maistrenak, emakume kaskamotzenak, eta haien ideiegatik fusilatutako alkateenak" zenbait bertso-lerroren bitartez. Jose Ramon Urtasunek egindako murala, hobi honetan eraildakoen izen eta herriekin kartela eta krabelin batzuk kontaketa pertsonal gogorren eta elkarteak instituzio desberdinetan eskatzen dituen aldarrikapenen lekukoak izan ziren. Teilerian Ahaztuak elkarteak idazkaria Ana Hernandezek ozen eta argi salatu zuen lehen oztopoan bere herrian dutela, herria go-

bermatzen duen taldeak eta haren alkateak, ez inplikatzear gain, kolektibo memorialista honen lana gogor kritikatzear baitute.



## BRIGADAK EGINDAKO LANAK AZKEN HILABETEETAN

Udan zehar udaleko askotariko eginkizunetarako langileen brigada handitu da 6 langileren kontratazioarekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzei esker. Kontu honek zenbait lan ekitea ahalbidetu du eguraldi ona aprobetxatuz gainera.

Ikastetxe publikoaren jolastokian hormigoizko plantxa bat bota da atarape alboan, eremu horretako zoru hondatua hobetzeko. Baita barrakoietan kokatuta dagoen haur-moduluari oholtza jarri zaio ere.

Halaber herriko zenbait eremutan bizikletendako aparkalekuak jarri dira, herritarren eskaerak aintzat hartuz. Kanpondo inguruetan jarritakoen kasua da, Ikastetxe Publiko edo Kultur Etxe inguruetakoa.

Paperontzi berriak ikus ditzakegu Trinkete kalean, udaletxeko plaza eta Zabalea pasealekuan.



## AGOIZKO UDALA AUZOEKIN

Berrogei eta hamar auzotar inguruk parte hartu zuen Agoizko Udalak pasa den urrian antolatutako auzoetako bi bileretan. Aurten berriz ere garbitasuna, trafikoa edo gune komunak hobekuntzak bezalako gaiak bertaratuko kontu komentatuak izan ziren.

Bilerak jendetsuagoak eta parte-hartzaileagoak ahalbidetzeko ideiarekin, Agoizko udalbatzak auzokoak deitu zituen elkartzeko bilera bana, azken bi urteko formatua errepikatuz. Honela, haien auzoetan antzemandako eskaerak eta arazoak planteatu ahal izateaz gain, hiribilduko auzotarrek edozein zalantza konpondu ahal izan zuten eta lehen eskutik udal kudeaketa ezagutu.

## AGOIZKO PLANO BAT ARGITARATU DA

Agoizko Udalak "Agoitz, ximplea da" turismo markari bultzada emateko asmoz, bisitarietarako interesgarria biltzen duen plana plazaratu du. Bertan herriko zerbitzuak, leku interesgarriak eta telefonoak bildu dira eta turistari bisitarako baliozkoak izan dakioken herriari buruzko informazio interesgarria eskaintzen da. Gainera, euskarriaren atzealdean Agoizko historia, natura, jaia eta ondarearen inguruko zertzeladak ematen dira. Momentu honetan Agoizko Udaleko Turismo Arloa liburuxka prestatzen ari da. Argitalpena zehatza eta deskriptiboagoa izanen da, eta aurki kaleratuko da.

Nafarroa Beherea plazan hesi bat jarri da plaza babesteko eta haurrak errepidera ateratzea saihesteko, horrek izan dezakeen arriskuaren aurrean.

Barraute kontearen kalean ispilu bat jarri da gidariek iristen diren autoak ikus ditzaten eta segurtasuna hobetzeko.

Iturrama kalean eta ikastetxeko inguruetako espaloietan beheertzeko gehiago gauzatu dira; berriz pintatu dira zebra-bideak pilotalekuko, Kultur Etxeko eta Elizako inguruetan; zuzentasunez pintatu da erreiak banatzen dituen lerroa Jubilatua Klubaren aurrean, eta Nafarroa Beherea plazan, Iturzarrea Parkean, Iturraman, Irati eta San Joakin urbanizazioetan eta Oroimenaren parkean zenbait banku konpondu eta pintatu dira.

Udaletik kaleko langileen lan handia eskertu nahi dugu urte osoan zehar, eta bereziki udako hilabeteetan. Zorionak!



Auzoetako bilera hauek, urtero egiten ari direnak azken bi legealdietan, Agoizko auzotarren jakin-minak, iradokizunak edo erreklamazioak ezagutzeko izan nahi dute. Honela, behin udalbatzak eta udal batzorde desberdinek aztertu dituztenean, udaleko arloetan garatutako lanetan sartzeko ahal diren baloratzen da, eta hala bada, urteko aurrekontuetara.

Harreman erronda hauen xedea parte-hartze zuzeneko bide bat gehiago izan nahi du hiribilduko auzotarrek haien kezak, kekak edo iradokizunak Udalari helarazi ahal izateko.



## TXAKURREN ETA GAINONTZEKO ANIMALIEN ORDENANTZAZ

Lerro hauetatik gogorazi nahi dugu Agoitzen animaliak edukitzeko ordenantza bat dagoela, egon behar diren baldintzak zehazten dituena eta auzotarren eta maskoten artean elkarrekin bizitzeko modua arautzen duena.

Animaliek ezin izanen dute ohiko bizileku bezala ez balkoirik ezta argirik gabeko edo aireztapen gabeko edo haien tamainarako txikiak diren gelarik eduki. Baimendutako gehieneko animalien kopurua etxebizitzaren batean mugatua izan daiteke auzotarrei eragozpenak saihesteko.

Erabat debekatuta dago kalean animaliei jaten ematea, bereziki katuei eta usoei.



Azkenik, txakurren kakak bide publikoan uzteko debekua seinaltzen du. Jasotzea haien jabeen ardurua da.

Udaletik txakurren jabeek konpromisoa eskatzen diegu berriz, guztion arteko ulermen ona bateragarria eta posiblea delako oinarritzko arau hauek errespetatzen baditugu.

## IRATI IBAIA GARBITZEKO AUZOLANA

Pasa den irailaren 15ean ospatu zen «Lurraren Garbiketaren Nazioarteko Eguna». 300 herrialdetako 50.000 bat entitatek batera parte hartu zuten hondartzak, ibaiak eta mendiak garbitzen. Agoitzen, Irati HHS Mankomunitateak eta udalak auzolan bat antolatu zuten, Zubialdea alderdian ibaiaren bazterrak garbitzeko. 500 metro lineal egin ziren, eta 18 m<sup>3</sup> zabor jaso zen: latak, bi doiak, burdinak, aulkiak, zapatak, arropa... eta frigorifiko bat!

Partaidetza handia izan zen. Herriko eta inguruko herrietako gizon-emakumeak eta haurrak hurbildu ziren gure ingurua zainduta eta garbia edukitzeko beharra ikustaraztea helburu zuen jardunaldian laguntza emateko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egitasmoan, hemen zein beste lekuetan, parte hartu zuten pertsona guztiei, egindako ahaleginarengatik eta lurra garbiago edukitzeko lanean jarritako ilusioarengatik.

## HONDAKINEN BILTEGI DESEGOKIA

Gure bizitzeko moduaren ondorioetatik sortzen ditugun hondakinek, Lurra planetaren jasagarritasunean zuzenean eragiteaz gain, geure poltsikoetan ere eragiten dute.

Azkenaldian, eta Agoizko paisaiako parte balira bezala, modu desegokian eta ordenarik gabe utzirik ikusi dira tamaina handiko hondakinak zein gainerakoak puntu desberdinetan.



Txakurrek, bide publikoan egoten direnean, lepokoa eraman behar dute beti eta bere jabeak kontrolatzen utziko dion uhal bategin lotuta. Arraza arriskutsukoa izan daitezkeen txakurrek edo oldarkorrek kontsideratuak direnek muturrekoa eraman behar dute.



**HHS Irati Mankomunitateak edukiontzia desberdinak zuzen erabiltzeko garrantziaz ohartarazten gaituzte, baita puntu garbiaz ere, gogoraziz astero erabil dezakegula ostegunetako azoka txikian. Tamaina handiko hondakinez Emauseko Traperoak arduratzen dira, hilean hirutan herrira hurbiltzen direnak etxe baztertu nahi dugun hori jasotzeko. Aldez aurretik 948 33 62 17 telefonora hots egin behar da hitzordua zehazteko.**



## BAT-NIGHT AGOITZEN

Joan den ekainaren 15ean "batnight" bat egin zen Agoitz. Ekitaldi hau, herri eta hirietan gero eta zabalduago dagoena, gaueko ibilaldi bat egitean datza eta gure ingurunean bizi diren sagu-zaharrak "in situ" identifikatzea.

Aldez aurreko solasaldi batean, Juan Tomas Alcalde saguzarren azterketan biologo adituak, zenbait bitxikeri kontatu zituen ugaztun txiki hauen bizitzaren inguruan, eta haiek babestearren behar argia azpimarratu zuen, ekosistemaren orekarako ezinbestekoak bai-



tira eta intsektu-populazioen kontrolean zeregin garrantzitsu bat baitaukate. Datu bitxi bat, hatz lodi baten tamaina duen saguzar nano batek gau bakoitzean mila eltxo eta guzti jan ditzake. Saguzar arruntaz ari gara, Pipistrellus pipistrellus, erraza ikusten jira biraka hegan eginez kale-argien alboan udako gauetan.

Ilunabarrean, ibilaldi bat egin zen ibaitik hurbil, eta entzuteko aparatu berezi batzuen laguntzarekin saguzarren sei espezie desberdin identifikatu ahal izan ziren:

- Saguzar arrunta / Pipistrellus pipistrellus
- Cabrera saguzarra / Pipistrellus pygmaeus
- Kuhl saguzarra / Pipistrellus kuhlii
- Ur-saguzarra / Myotis daubentoni
- Baso-saguzarra / Barbastella barbastellus
- Baratze-saguzarra / Eptesicus serotinus

Nafarroan 27 saguzar espezie desberdin aurki ditzakegu, gehienak mehatxatutako espezien katalogoan sartuta daude eta batzuk desagertzeko zorian.

Ekitaldi honetan bertaratuko guztiak azaldutako interesa eskertzen dugu.

## AGOITZEK 50.000 KM EGIN DITU "ERRONKA SOLIDARIOAN"

Diario de Navarra Fundazioak eta "La Caixa" Gizarte Ekintzak antolatutako "Erronka Solidarioa" sobera bete da. Hasiera batean milioi bat kilometro osatu nahi ziren 18 astetan, eta, guztira, 1.465.305 lortu dira, egitasmoan parte hartu duten 5.135 persona, 17 enpre- eta hainbat toki entitateen artean (Agoizko Udala barne).

Ekimen honen funtsa da besteak laguntzeko kirola egitea, eta, zenbat eta kirol gehiago egin, aukeratutako xederako orduan eta ekarpen ekonomiko handiagoa lor daiteke. Agoitzek erronka honetan ia 50.000 km egin ditu (45.000 udalak eta 5.000 Jubilatuen elkarteak). Horri esker, agoizko udalak 1.751,10 euro lortu ditu. Kopurua desfibriladoreak ordaintzeko erabiliko da.

## III AGOIZKO MENDI LASTERKETA

Joan den urriaren 13an III Agoizko Mendi Lasterketa egin zen. Ekitaldiaren antolakuntzak ia urte batez egin duen lanari esker, baita boluntario zerrenda zabal bati esker ere, dena prest zegoen larunbata goizean kirol egun batez gozatzeko gure Agoizko mendia maiteetatik.

Ingeles puntualtasun batez goizeko bederatzietan hasiera eman zitzaion lasterketari ibilbide luzetik (22 km. eta 1.200 metro baino gehiagoko desnibelarekin), 96 kementsu ausartu ziren lasterketa. Ordu bat beranduago ibilbide motzari hasiera ematen zion suzuria bota zen (hau 13 km eta 630 metroko desnibelarekin). Ibilbide honetan 90 korrikalari irten ziren eta agoiztarren parte-hartze handiago batez gozatu ahal izan genuen.

Hirugarren edizio honek, aurreko urteetan ospatutakoak bezalaxe, arrakasta handi bat izan du kirol mailan zein antolaketan. Azpimarratu eta eskertu nahi diegu dena prest egon dadin kolaboratzen duten pertsona eta enpresa mordoari eta lasterketa egutegi estu batean ekitaldi honek indarra har dezan. Zorionak!

Helburuarekin bat egin eta ahalegindu eta konprometitu diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, gure helburua lortu baitugu.



## KOSTRADAREN XX. LASTERKETA

Agoitzen, festak hasi aurretik eta ohikoa den moduan, Kanpondoak, Agoizko udalaren eta herriko zenbait enpresaren laguntzarekin, Kostradaren XX. lasterketa ospatu zen.

Lasterketak bi kategoria izan zituen, haurrentzako eta helduena.



## ETB2 SINTONIZA DAITEKE JADA AGOITZEN

Nafarroako Gobernuak pasa den udan bete gabe (NTB) geratu zen TDT kanala gordetzea erabaki zuen berriki ETB-2 seinalearen emititzeko. Honela, gaztelaniaz emititzen duen euskal erakunde autonomikoko orotariko kanalaren seinalea joan den irailetik sintoniza daiteke foru lurraldean osoan 26 kanalean (Nafarroako anizkun autonomikoa).

Erabaki honek "nafarren eskaerari" erantzuten dio, seinalatu zuen Ana Olló Herritarren eta Instituzioen arteko Harremanen

## XIII. ARGAZKI LEHIAKETAREN SARIA

«Paisaje con figura» da Agoitz Hiria XIII. Argazki Lehiaketaren saria jaso duen argazkiaren izena. Ángel Benito Zapatak eginikoa da, eta, lehiaketako oinarrietan adierazita dagoen moduan, 500 euro jasoko ditu harengatik. Epaimahaiak zaila izan zuen irabazlea aukeratzea; izan ere, lan asko, eta kalitatezkoak, gainera, aurkeztu ziren. Herritarren saria (300 euro), berriz, Alfredo León Mañúk jaso du, «Edo kalean gora?» argazkiagatik. Bi modalitateetara aurkeztu-



Modalitate orokorra: "Paisaje con figura"  
Ángel Benito Zapata

Lehena 18:00etan hasi zen, eta haurren artean urduritasuna eta emozio biziak sumatzen ziren. Parte hartzaile guztiak saritxo bat jasotzen zuten, eta bukatutakoan argazki bat egin zen, etorkizuneko irabazlea Cristóbal Galera izan zen, ondoren beteranoen mundialean korrika egin zuena. Emakumezkoen kategorian, berriz, Irene Guembe izan zen irabazlea. Herri mailako kategorian, Rita Jiménezek eta Rubén Morillok lortu zuten garaipena.

19:15ean hasi zen proba absolutua. Ia 100 partaide izan zituen, horietako erdia, herrikoak. Maila handiko lasterketa izan zen, gizonen irabazlea Cristóbal Galera izan zen, ondoren beteranoen mundialean korrika egin zuena. Emakumezkoen kategorian, berriz, Irene Guembe izan zen irabazlea. Herri mailako kategorian, Rita Jiménezek eta Rubén Morillok lortu zuten garaipena.

Eguraldiak lagundu zuen eta arratsaldea atsegina gertatu zen. Nabarmentzekoa da inskripzio gehiago izan zirela, kategoria guztietan, hala nola ibilbide osoan egon zen giro ona.

Kanpondoak eta Udalak eskertu nahi dute boluntario guztien laguntza, Kostradaren Lasterketaren edizio hau ere arrakastatsua gerta zedin.

kontseilariak, zeinek "milaka herritarren" eskaera aipatu zuen Nafarroa osoan euskal telebista publikoaren bigarren kanala jaso ahal izateko.

Gure etxeetan ETB2ren seinalea zuzen hartzeko, TDT gailuak berriz sintonizatu behar ditugu, seinale berri guztiak jasotzeko asmoz. "Honela, Foru Ogasunari kosturik ekarriko ez dion operazio batean, orotariko kanal bat Nafarroa osotik hedatzea baimentzen da", adierazi zuen kontseilariak.

tako argazki hoberenak bilduko dituen erakusketa inauguratzeko ekitaldian banatuko dira sariak.

Aurtengo nobedade gisa, herritarren saria aukeratzeko modua izan da: on-line bozkatzeko aukera izan da, aldez aurretik epaimahaiak aukeratutako hiru argazkien artean, udal web-gunean gaitutako formularioaren bidez.



Herritarren saria: "Edo kalean gora?"  
Alfredo León Mañú

## JAIETAKO BALORAZIOA

Giro eta eguraldi onarekin iragan ziren jaiak, eta, gainera, herriko askok parte hartu zuten udalak antolatutako ekitaldietan.

Agoitz herri solidarioa, konprometitua eta dinamikoa dela argi gelditu zen txupina jaurtiki aurretik ere. Eta txupinazorako udalak pasa den urtean arlo horretan aritu diren pertsona eta kolektiboen lana errekoizitu nahi izan zuen, festei hasiera eman aurretik udaletxean egiten den ekitaldian. Agoizko Burrenba, guraso elkarteak, Umafya-a, IAE-ekin kolaboratu duten herrikoak, jaietako kartelen irabazleak eta zenbait diziplinatan nabarmendu diren herrikoak: futbola, arkitektura, pilota edo artean. Aurelio León aretoan izan zen lehenengo aldiz.

Bi taldek konpartitu zuten jaietako emate ekitaldia: batetik, Agoizko errefuxiatuen kolektiboa, haiek gaztelania ikas dezaten eskolak ematen dietenak eta Gurutze Gorriko (programaren koordinatzailea) ordezkariak; eta, bestetik, El ABC que salva vidas elkarte.

Igandean, prozesioaren ondoren, dantzak eta erraldioak, ohikoa den moduan. Eta arratsaldean Aspe enpresako pilotari profesional artekipilotapartidarekin gozatzeko aukera egon zen. Egutero, dan-



## PARTE-HARTZE HANDIA, SANMIGELETAN

Jende askok parte hartu zuen San Migelen ohorean ospatu ziren festen ekitaldien programazio anitza eta zabalean. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta eguzkiak kalera atera zituen irailaren 29an ospatzen diren festa txikiak disfrutatzen.

Ostiral arratsaldean, Kultur Etxea aisialdi areto handi bat bilkatu zen. Bertan txikiak gozatu zuten programatutako tailer eta jolasekin. Foru Komunitateko Erremonte Txapelketa 2018 zela eta, finalurreko bat ospatu zen Agoizko pilotalekuan, eta bi pardi jokatu ziren.

Agoizko Gaitariak eskaintako dianek eman zioten hasiera irailaren 29ari. Ondoren zanpanzara ibili zen herriko kaleetan zehar. Herriko



tzaldian, Agoizko Ingurutxo dantzatzeko aukera izan zen, Agoizko txistulariei esker.

Astelehenean ospatu zen Haurren Eguna. 2017. urtean jaietako haurrei Udaletxe plazan banatu zitzaizen zapi, udaletxearen barnean dauden leku arazoak direla eta; eta inoiz baino biziago suertatu zen.

Gazteek pila bat disfrutatu zuten bere egunean. Ohiko aktibitatez gain, aurten moztortzeko gonbitea egin zieten koadrilei; eta, gai moduan, filmak. Arratsaldean, plaza gainezka egon zen Puro Relajo taldearen emanaldiaren bitartean.

Eta asteazkena izan zen jaietako azken eguna, adinekoentzako gordetako. Parkean gitarra taldeak kontzertua eskaini zuen. Horretaz gain, zahar egoitzara ohikoa den bisitaldia egin zen eta bazkaria egin zuten. Plazako dantzaldia Agoizko musika talde berri batek eskaini zuen: Aztekek.

Eta Gaixoa Nin abestu zen moduan, 2019. jaietarako gero eta gutxiago falta da.

patroiarren omenez, ohiko prozesioa eta ondorengo meza ospatu zen. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa ere kaleetan barna ibili zen, Agoizko Gaitariak eta Milaur Taldeak lagunduta.

Bitartean, dantza taldeak ohiko hamarretakoa antolatu zuen. Meza ondoren, kalejira eta antzezpena egin zen: agramondar eta beaumontarren arteko guda, ondorengo bakearen sinadura eta irangan mendeetako oihalgileen lana. Zita ikusgarria, Nafarroa Beherea plazan gero eta jende gehiago biltzen duena.

Iraunkorrak txarangak poteo orduan eta herri bazkarian jo zuen. Dantzaldia eta gaupasa, Trikidantz Taldearen esku egon zen. Horretaz gain, eguna borobiltzeko, ezin falta zezensuzkoa eta DJ-a (Tape).

Igandean «Historias de Aoiz-Agoizko Istorioak» erakusketak hartu zuen protagonismoa, Ondareari Buruzko Europako jardunaldiko ekitaldien programazioaren barnean eskaini zen bisitaldi gidatuekin.

Jubilatuaren Elkarteak, berriz, omenaldia eskaini zien Emilio Blasco Zalbari eta aurten urrezko eztaiak egiten zituzten zortzi bikoteei. Elkarteak Beti Jai jatetxean antolatu zuen bazkariak bukaera eman zion jai ekitaldiko agendari.

## KULTUR BALANTZEA

**UZTAILA ETA ABUZTUA.** Uztaila eta abuztuan zehar, tartean herriko festak izan badira ere, udalaren kultur aktibitateak bere martxa jarraitu du. Kultur Etxean ikusgai egon da Euskal Memoria Fundazioak antolatutako "Gogoan hartzeko izenak" argazki erakusketa. Joseba Zabalza argazkilariak Euskal Herriak azken hamarkadetan bizi izan duen gatazka politiko eta armatuaren isildutako biktimen inguruko lana biltzen du.



Kultur Etxean ere ikusgai egon ziren jaietako lehiaketara aurkeztutako kartelak. Patxi Huartek emandako "Udan plastikatzen" eskulanen tailerren egindako lanekin batera.

Mariano García musika bandak udan ematen ohi duen kontzertua eskaini zuen aurten ere, gainezka bete zen plazan. Agoizko gaitariak, berriz, kaleak animatu zituzten uztaileko azken ekitaldian.

Angluerrekak berriro antolatu zuen Garagardoaren Festa, eta, beti bezala, arrakastatsua suertatu zen. Ekitaldiak urterik urte parte hartzaile gehiago izaten ditu. Merkatuko plazan, garagardo goxoak, musika ona eta belaunaldi askotako jendea.



**IRAILA.** Iraileko kultur agendan bereziki nabarmentzekoa da «Historias de Aoiz-Agoizko Istorioak» erakusketa interesgarria. Baina bazeuden programazioan ekitaldi gehiago: hilabetero egiten den pintxo-potea, gerra garaian fusilatu eta errepresaliatutako aldeko omenaldia, *Arteterapia* eta *Familia giroko Arkitektura* tailerrak eta adinekoentzako Gizarte Zerbitzuen inguruko hitzaldia.

Horetaz gain, Nafarroako Gobernuko KULTUR programazioaren barnean, Mielotxin folk taldeak Alan Lomax in memoriam izenarekin prestatutako errepertorio berria eskaini zuen gainezka egon zen Kultur Etxeko entzutegian. Ikuskizunak gure folkloreak abarastatzen erakutsi zuen, eta musikariak, txalapartariak eta dantzariak bereziki zaindu zuten haien taularatzeko modua, melodia eder eta dantza ikusgarriak txukun eskaintzen.



**URRIA.** Kultur Etxean «Historias de Aoiz-Agoizko Historioak» erakusketari Kristina Cosinek hartu zion erreleboa "Urari Begira" izeneko erakusketarekin, Itoiz bailararengatik bere begirada eta sentimendua erakutsiz. Zenbait formatu eta teknika agoiztar artistaren begirada pertsonala jasotzeko.

"Lehenengo eta oraingo euskal kantuek" melodiak San Miguel abesbatzak interpretaturik, eta Aritz Ugaldek pianoan lagundurik, lepo bete zuten auditorioa musika hitzordu berri batean. Halaber, Bilaketak bere ohizko kafe-kontzertuak eskaini zituen hilaren azken bi igandeetan.



"Agoizko Zubiaren Lagunak" Elkarteak ikasleak deitu zituen berriro "Agoizko Zubia" aire libreko pintura lehiaketan parte hartzera. Oraingo honetan Iruñeko Maristas ikastetxeko 6. mailako ikasleak hurbildu ziren herrira.

Irati antzerki taldeak "ez dago sarrerarik" kartela zintzilikatu zuen berriz ere Humberto Robles eta Juan Riosen "Nosotras" lan dibertigarriaren emanaldi banatan.

Hilabetea amaitzeko, Ventura Ruizek "Sagu madarikatuak" ipuinarekin, haurrak bildu zituen liburutegian euskarazko ipuin kontakizunetan. Eta Sara Perez Goizargi Elkarteko psikologoak "Ni begiratu begira zaitzaketa" izenburua zuen hitzaldi interesgarri batean gure bizitzako une zailetan pertsonen arteko laguntza harremana azaldu zuen.



## JITO ALAI AGOITZEN



Pasa den urriaren 14an, Kultur Etxeak jendez lepo "JITO ALAI" ikuskizuna jaso zuen. Bohemia doinuak. Lurrak dantzaten du, 2018ko ikuskizun onenari GAIARRE SARIA. Duela urte batzuk bere dultzainarekin festetan bisitatzen gintuen Josetxo Goia-Arribena-

far saxofoi-jotzailearen jatorrizko musika eta ideia izanik, Jose Antimasberes "El Castañuelasi" omenaldi bezala asmatu zuen ikuskizuna da. Honetan Karekin Kultura kultur eta emozio-ku-deaketako agoiztar enpresak kolaboratu du.

Jose, bere kriskitinak, bere kasetea eta bere kiribilak oso ezagunak izan ziren gure kaleetan, beste herri nafar askotan bezalaxe. Udalak Candy eta Esmeralda bere agoiztar familiari opari bat eskaini zien, eta auditorioa betetzen zuten ikusle guztiek bizitza nomada eraman zuen eta artista honen historiaz gozatu egin zuten dantzari eta musikari handien bitartez egindako emanaldiarekin.



## EUSKARALDIAK IZENA EMATEKO EPEA ZABALDU DU

Euskaraldia heldu den azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal herri osoan gauzatuko den ariketa kolektiboa da, euskararen erabilera bultzatzeko, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dutenen artean.

Agoizko Udalak, ekimenarekin bat egin nahi izan du, eta izena emateko interesatuta dauden guztiei egiteko aukera eskaini die Udaleko Euskara Zerbitzuan. Euskaraldiaren web-gunearen bidez egin daiteke: [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

Ekimenaren bultzatzaileek dioten moduan, Euskaraldiaren helburuetako bat da "eguneroko hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskara erabiltzea dugula frogatzea, uste dugun baino leku eta egoera gehiagotan".



## ORREAGA FUNDAZIOAK NAFARROAKO ELKARTEEN EGUNA OSPATU ZUEN AGOITZEN

Joan den urriaren 6an eta Anguluerreka elkartearen eskutik, Orreaga Fundazioak Nafarroako Elkartearen Eguneko jai-eguna antolatu zuen Agoitzen.

Merkatuko plaza gosari jendetsu baten eszenatokia izan zen ohiko artisa-azokaren parean. Bertako trikitilari eta txistulari taldeek, erraldoi eta kilikien konpartsak, gaita-jotzaileek eta joaldunek kalejira alai batean parte hartu zuten, eguneko ekitaldi nagusiaren aurretik.



Jarraian hainbat herritar bildu zuen ohiko kantuzek, herriko kaleetan zehar zenbait kanta interpretatuz. Arratsaldean eta herribazkari baten ondoren, herri-kiroleko zenbait proba gauzatu ziren Agoitz eta Berriozarko taldeen parte hartzearekin.

Jai-eguna amaitzeko, agur ekitaldi bat egin zen, eta bertaratu guztiak gonbidatu zituzten heldu den urtean ospatzen den edizioa parte hartzera.

